

Bezeroekiko harremana

Gure enpresak denda fisikorik ez duenez, amaierako eroslearekin ez da harreman zuzenik izango, nahiz eta salmenta fisikoa egiten den denda baimenduetan geuk formakuntza ikastaro bat emandako pertsonalak eskainiko dion arreta pertsonala balizko bezeroari bertatik bertara.

Hala ere, geure enpresak zerbitzu automatizatua izango du bezero potentzialarekin sare sozial, telefono edota e-mail bidez. Jada bezero denari, aldiz, aurrez aurreko arreta eskainiko zaio.

Bezeroak gure markarekiko leialtasuna izan dezan eta erakargarriagoa egiteko, hein batean eskaera pertsonalizatzeko aukera izango du (preziora handituz edo txikituz), zerbitzu teknikoa eskainiko zaio eta enpresako berrikuntzei dagozkion buletina jasoko du.

